

AURKEZPENA

Euskaltzaindiak, bere ekintzak bizkortzean, beharrezkoa ikusten zuen *Iker* eta *Jagon* sailetan beren gai propioei dagozkien liburu bildumak kaleratzea. Asmo horrek eraman zuen 1981ean *Iker-1* argitaratzera. Ez orain bakarrik, lehen ere ikerketaz eta jagonketazko libururik argitaratu ez duelako, baizik aurrerantzean maizago emango dituelakoan sail berezizko bildumak egokiago diren ustetan.

Liburu sail berri honi hasiera emateko, lehenik beste tituludun bat pentsatu zen, baina zer hoberik 1982.eko Bertsolari Txapelketa baino? Bertsolaritza izan bait da gure belaunaldi honetan ez-ezik, mende osoaren zehar ere euskalduna euskararen alde zuzpertzeko ziorik handienetakoa. Bertsolaritzan ere, Txapelketa gainera, zeren txapelketak ekarri bait ziguten jendartean bertsolaritzaren hedakundea eta ospea, eta era berean birbaliatzea: ahozko literatura hau herriaren aurrean indarberritzea eta munduaren aurrean berebiziko nortasuna ematea, Txapelketari zor dio.

Hargatik, beharrezkoa deritzagu *Jagon-1* horretan gai horri buruz zenbait adierazpen ematea.

Bertsolari Txapelketak, berez, bertso gintza hobetzeko ahaleginetara behartzen du bertsolaria. Norgehiagoka aritze horrek edozein bertsolari ardura bizian jartzen bait du; baina bestelako arrazoirik ere badu Txapelketak: bertsolari berriak sortzekoa. Eta, horrek bedorrekina dakar literatura mota horren iraupena.

Aintzina, Pernando Amezketarra, Xenpelar eta abar, Pello Errota eta Udarregiren garaira arte, desafiozko nor-gehiagoka jokatzeko ziren elkarren artean; eta gure mende honen lehen partean asmatu ziren Txapelketak. Lehenengoak 1935. eta 1936. urteetan jokatu ziren, Basarri eta Txirrita txapeldun irten zirenak. Saio haiek, *Bertsolari guduak* (1936) zeritzan liburuan jaso ziren eta orduko epai-mahaiak bere epaiketarako erabili zituen aburuak liburuaren 27. orrialdean agertzen dira. Aburu horien arabera, kontuan eduki beharrezkoak zituzten: «sorpena, irudipena, bertsotarako erraztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oinen berdintasuna».

1946an, Eskualtzale Biltzarrak eraturik, Donibane Lohizunen eta Hazparnen egin ziren sariketak. 1950.ean Donibane Garazin, Eusko-Ikaskuntzak eratua eta 1957.an Parisen, Eskualtzale Biltzarraren babespean euskararen eguna ospatuz. Hiruretan Basarri izan zen irabazle eta G. Hernandezena sariketon bultzatzaile eta eratzzaile.

1958. eta 1959.ean egin ziren Bizkaiko lehen txapelketak Euskaltzaindiak antolaturik, A. Irigoyen eratzzaile buru zela. 1959.eko Azaroan egin zen Gipuzkoan eta ordutik hasita hurrengo urtearen zehar Nafarroan. Era horretara Euskal Herri guztiko Txapelketa egiteko aukera jarri zen; baita egin ere, Euskaltzaindiaren babespean, 1960. urteko Abenduaren 18an Donostiako Victoria Eugenia Teatrotan. Basarri atera zen txapeldun.

Geroztik 1962, 1965 eta 1967an egin ziren Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak. Hiruretan Uztapide (M. Olaizola) atera zen txapeldun. Txapelketa horiek ere liburutetan jaso ziren, Itxaropena argitaldariko Kuliska Sortan lehena eta Auspoa Liburutegiak argitaraturik beste hirurak.

Basarrik beste ikuspegi berri bat eman zion bertsolaritzari: saioetan era egokiz tokia egitera bultzatu zuen, hizkuntza eta bertso egitura hobeto zaintzea erakutsi zuen. Bai horrek eta bai Xalbador ahortzi ezinaren poeta dohainek, kultura mailaz gorapena eman zioten bertsolaritzari.

Zazpi urteren buruan perretxikoak bezala sortu ziren bertsolari berriak. Baina, ondorean urte batzutako geldialdia ezagutu zuen bertsolarien Txapelketak, alde batetik zentsura ofizialetik sortzen zitzaion eragozpenagatik eta bestetik bertsolari taldeek beren baitarik epaiketaz zituzten eritziegatik holabaiteko garantia eskatzen zutelako. Hala ere, 1979an Euskaltzaindiaren deia jaramon egin zioten, gure erakunde honek, euskararen zuzperketaz Txapelketen beharra adierazi ondoren.

Lehenagoko erizpideeri jarraituz, baina bertsoak epaitzeko aburuak zehatzuz, antolatzaileen aldetik, epai-mahai-koentzat oinarri hauek gomendatzen dira:

- a) Gaia: gaiari zehatz heldu eta gainera sakondu eta aberastu.
- b) Egitura: saioaren sarrera, jarraipena eta bukaera.
- d) Neurriak eta puntuak: neurria musikaren arabera. Puntuetan, potoez gainera, ia aberatsak, errazak edo pobreak diren ala ez begiratu dira.

1979.eko Abenduaren 23 eta 30ean Mondragoen eta Gernikan jokatu ziren eliminatoriak, 1980.eko Urtarrilaren 6an Donostiako Karmelo Balda Frontoian bukatzeko. Denbora ez zen alperrik igaro eta, hala beharrez, aurpegi eta era berriak erakutsiko zituen Txapelketa horrek, X. Amuriza txapeldun zela. Orduko azken saioa ere Auspoa Liburutegiak argitaratu zuen. Eta, hara orain 1982.ekoa, argialetxe berari aukera eskaini ondorean, non datorren *Jagon* sailaren liburuei hasiera ematera. Izan bedi bertsozaileen ase ezinezko gogoaren lagungarri.

Azken bi Txapelketok (1980 eta 1982koak), trofeo ezagurri batekin sariztatuak izan ziren: Xenpelar irudia, 35 zentimetrotako neurrian, brontzez funditurik eta zilarreztatirik.

Irudi hori Jorge Oteiza eskultore ospetsuak egin zuen 1969. urtean, Xenpelarren heriotze mendeurrenez, Errendearian eraiki nahi zuten kultur-etxe baten aurrean, alturaz zazpi metro izatekotan. Baina, orduko eragozpenek eta oz-

topoek deuseztu zuten asmo hura. Harako diseinatu zuen Xenpelar irudia, Oteizaren borondate onari esker, Bertsolari Txapelketarako trofeotzat dugu eta egilearen baimenez *Jagon* liburu sail honen azalerako ere baliatzen gara, Xenpelarren itzalak gure baitan iraun dezan.

Juan San Martin
Jagon sailburua